

"Aita-semeak"

Ivan Sergelevitx Turgenev

euskaratzailea: Jose Morales Belda

Ibaizabal, 1999

Gustura irakurtzen ditut azkenaldi honetan idazleei buruzko biografiak. Norbaitek esan lezake horrek guztiak ez duela erabateko garrantzirik, apaindura besterik ez dela, idazle bat bere lanek egiten dutela eta horrela... Gero eta buruan sartuago dut, hala ere, idazleei buruz dakigunak baldintzatu egiten duela nolabait haren lanari buruz izan dezakegun iritzia. Biografia gero eta lagungarriago zait, literatura aztertzerakoan.

Turgeneven biografia maitea dut oso, eta dakigunaz ari naiz, ez dakigun kontu asko (ez oso politak beharbada) dagoela sumaturik. Esaterako Turgenevek berak asmatu zuen "nihilista" hitza, geroxeago erabiliago, higatuago eta maiztuagoa izango zena, Europa Mendebaleko filosofoek, batez ere alemaniarrek, zabaldurik. Nihilista baita Bazarov, Aita-semeak nobelako pertsonaia. Testu horretan aita-semeen artko ulertezina adieraziz, Turgenevek Errusian batez ere eta Europa osoan bidenabar gertatuko zena ikusi baitzuen alde zuzenetik. Isaiah Berlinek esan zuen bezala: "...burgesiaren atzean ezkutaturik zegoen etsai ikusi zuen: gazte-jende nihilista, mundua suntsitu nahi zuena, handik mundu berri eta zuzenagoa sortuko zuelakoan". Turgenevek Bakunin Parisen ezagutu zuen eta haren adiskide egin zen, Bakuninen arrebaz maitemindurik baitzegoen. Erromantikoa zen errotik. Geroxeago, Paulina Garcia abeslariak maitemindu zen eta haren jarraitzaile bihurtu. Bitxia, izan ere, Paulina Garcia ezkondu zegoen Viardotekin, eta hirurak jarri ziren elkarrekin bizitzera.

Aita-semeak da Turgenieven lanik bikainena beharbada; nahiz eta Ehiztari baten kontakizunak izenekoa izan ezagunena. Lastima da agorturik egotea. Edizio asko ezagutu ditu gazteleraz, itzulpen kurioso bat baino gehiago, tarteko Rafael Cansino Assensena.